



BILBOKO EGOITZAN NAS SOLUZIOAREN HORNIDURA, INSTALAZIOA ETA KONFIGURAZIOA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3319

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Félix Díaz de Rada Quintana
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: NAS (Network Attached Storage) biltegitratze-zerbitzurako ekipamendua hornitzea, instalatzea eta konfiguratzea Bilboko egoitzan. 2.- Bete beharreko premiak: Gaur egun, BBUPk NAS biltegitratze-sistema du Bilboko egoitzan, bi DPZetan, BBUP osoan egikaritzen diren aplikazioei eta haien ingurune informatikoetan lan egiten duten erabiltzaileei zerbitzua emateko. NAS zerbitzuak eskaitzen duen ekipamendua eta soluzioa eguneratzeko beharra eragiten dute hauek: aplikazioen erabileraren hazkundeak, horien baliabideen kontsumoa handitzeak eta sistemen segurtasuna handitzeko betekizunak. Horregatik, behar horiek asetze aldera, beharrezkoa da plegu hau argitaratzea. 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Zatiren bat lotetan banatzeak zaildu egingo luke ezagutzen ez duen ekipo-eredua instalatzea, edo hornitutako hardwarearekin guztiz bateragarria izan behar duen soluzioa hedatzea. Bestalde, lizentzien eta ekipoen mantentze-lanak koordinatu behar dira, horiek instalatu edo ordeztu ahal izateko. Koordinazio hori ere behar da fabrikatzaileekin hitz egiteko, eskatutako mantentze-lanei dagokienez, gerta daitezkeen gorabeherak konpontzeko.
4.- CPV: CPV kodea: 48820000 Deskribapena: Zerbitzariak
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ



B.- KONTRATUAREN XEDEA

6.- Izaera juridikoa:

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

**EHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST MILA
LAUREHUN ETA LAUROGEI EURO
(175.480,00 €), BEZik GABE.**

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 193.028,00 euro

Loteak: ☐ BAI ☒ EZ

Horren barne dago hornitu beharreko unitate-kopuruaren % 10eko gehikuntza, eta horretarako ez da beharrezkoa izango aldaketa-espeditierik izapidetzea, SPKLren 301.2 artikulua betez.

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa
☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

- 2027. urteko PARTIDA: 92005.62601 ZENBATEKOA: 155.000,00 euro, BEZik gabe.
- 2028. urteko PARTIDA: 92005.21501 ZENBATEKOA: 5.120,00 euro, BEZik gabe.
- 2029. urteko PARTIDA: 92005.21501 ZENBATEKOA: 5.120,00 euro, BEZik gabe.
- 2030. urteko PARTIDA: 92005.21501 ZENBATEKOA: 5.120,00 euro, BEZik gabe.
- 2031. urteko PARTIDA: 92005.21501 ZENBATEKOA: 5.120,00 euro, BEZik gabe.

5.- Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Ordainketa helburuen lorpenaren arabera egingo da:

- 1. eta 2. prezioei dagozkien zenbatekoen % 50, ekipoak eta lizentziak instalatzen direnean eta betekizunak betetzeko probak egiten direnean.
- 1. eta 2. prezioei dagozkien zenbatekoen % 50, soluzio osoa ezartzen amaitzean, ezagutzaren transferentzia eta dokumentazioaren entrega barne.
- 3. prezioari dagokionez, kontratuak irauten duen bitartean egindako lanen ziurtagirien arabera egingo dira ordainketak.

8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa HIRUROGEI (60) HILABETE.

2.-Epe partzialak. ☒ BAI ☐ EZ

- Hornidura, ekipoen instalazioa eta egituratu gabeko datua biltegiratzeko soluzioaren konfigurazioa: 5 hilabete.



D.- KONTRATUAREN EPEA

- Mantentze-lanak: Bost urtera arte.

Mantentze-lanetarako zerbitzuaren hasiera-data Partzuergoak ekipamenduaren hornidura osoa onartzen duen egunetik hasiko da.

3.- Luzapena: ☐ BAI ☒ EZ

4.- Berme-epea: URTE BAT (01)

5.-Kontratua betetzeko tokia: BBUPren Bilboko instalazioak

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak: ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena –aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea– zenbateko hau izan beharko da gutxienez. 175.480,00 €

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kontratuaren xedeari dagokion mota edo izaera bereko lanak egitea. Hori egiaztatzeko, interesdunak azken bost urteotan egin dituen lanen, kontratuaren xedeari dagokion mota edo izaera berekoen, zerrenda aurkeztu beharko da, obra ongi egin izanaren ziurtagiriek ziurtatuta. Gutxienezko baldintza izango da exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren edota batez besteko urterokoaren (kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa bada) balio zenbatetsiaren % 70 edo handiagoa izatea.

Giza baliabideak eta baliabide materiala atxikitzea:

Kontratua gauzatzen parte hartuko duten teknikariak, ziurtagiriak eta kontratuaren xedearekin lotutako lanetan izandako esperientzia. Langile horiek gutxienez hiru urteko esperientzia izan behar dute egituratu gabeko datuak biltegitatzeko soluzioetan. Fabrikatzaileak eskaintako soluzioan ziurtatuko du, gutxienez, kontratuari esleitutako lantaldeko pertsona bat.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimen tekniko eta profesionalari dagokienez eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, Hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK

1.-1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.-2. gutun-azala: Balio-judizioen araberako irizpideen dokumentuak.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak.



BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

Hauek zehazten dituen dokumentazioa gehitu beharko da:

- Hornitu beharreko ekipoen ezaugarri teknikoak, bai eta eskatutako osagai bakoitzaren *part number*-a ere. Eskatutako betekizun bakoitzaren betetze-ezaugarria adierazita.
- Proposatutako sistemen arkitektura deskribatzea, maila fisiko eta logikoan, elementu bakoitzaren funtzioa zehaztuta, eta plegu teknikoan soluziorako eskatzen diren funtzionaltasunekiko betetze-ezaugarria adierazita.
- Lanak gauzatzeko metodologiaren deskribapena, kasu bakoitzean lizitatzailleak horiek betetzen direla bermatzeko ezartzen dituen konpromisoak zehaztuta.
- Zerbitzua emango duten giza baliabideen deskribapena, kontratuaren xedearekin lotutako ezagutzak, esperientzia eta ziurtagiriak barne.
- Soluzio osoa entregatzeko eta zerbitzuan jartzeko kronograma.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz-mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

ZK. PREZIOA	ITEMA	UNITATEAK	PREZIO/UNITATE	GUZTIZKO PREZIOA
1	NAS biltegiaritze-sistema Albia eta Uribitarteko kokapenatarako, bost urterako euskarri fabrikatzailea barne	2		
2	Ekipoen instalazio- eta konfigurazio-zerbitzua Eskaintako NAS soluzioa konfiguratzeko eta abian jartzeko zerbitzua. Ezagutzaren transferentzia.	1		
3	Laguntza eta mantentze-lan integratzailearen zerbitzua, 8x5 modalitatean	320		

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-klausula partikularren agiriaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:



I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Presidentetza:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK 70 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 70 puntu lor daitezke

Eskaintzarik merkeenari emango zaio puntuaziorik handiena, eta gainerako eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko, formula hau erabiliko da: eskaintza ekonomiko txikienaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikagarri zaizkion puntuen guztizko kopuruarekin biderkatzea.

Hau da:

(Ob / OI) x z

Non:

Ob = eskaintza ekonomiko txikiena

OI = baloratzeke dagoen lizitatzaillearen eskaera

z = irizpide honi aplikagarri zaizkion puntu guztiak.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

BALIO-JUDIZIOEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK 30 PUNTU

Memoria teknikoa:

15 puntu

Proposatutako soluzioaren diseinua, hauek baloratuta:	10 puntu
- Eskainitako ekipamenduaren ezaugarri teknikoak - Arkitekturaren xehetasuna maila fisiko eta logikoan - Kabinen arteko erreplikazio-sistemaren eta failover (automatizatzeko aukera, sinpletasuna eta erabiltzaileengan inpakturik ez izatea) mekanismoaren kalitatea. Datuak kabina bidez biltegitratzeko sistemaren dimentsionamendua. Instalaturako disko-kopurua, unitate-tamaina eta errendimendu agregatuan eta berreraikuntza-denboran duten eragina ebaluatzea - BBUPren instalazioetan ekipamendua entregatzeko fasearen xehetasuna - Instalatzeko eta abian jartzeko fasearen xehetasuna - Konfiguraturako diren txostenak eta alertak	
Lan-metodologia. Kontratua osatzen duten lanetarako identifikatzen diren faseak deskribatzea.	2 puntu
Lanen programazioa: Jardueren iraupen arrazoitua, koherentzia jardueren banaketa sekuentzian, lan-planaren xehetasun-maila, lortu beharreko mugarri partzialak, zeregin bakoitzari esleitutako lantaldea.	3 puntu

Salmenta osteko hornidura, instalazioa eta zerbitzua:

15 puntu

Entregatzeko epea, aldia eta bermearen baldintzak	2 puntu
Aurreikusitako soluziorako kontratuari atxikitako teknikarien ezagutza-maila eta ziurtagiriak, kontratuaren xedearekin zerikusia duena bakarrik adierazita	4 puntu
Mantentze-lanetarako eta gorabeherei arreta emateko faserako metodoak eta harremanetarako modua	2 puntu
Kontratuari esleitutako lantaldea antolatzea. ZMAk betetzeko baliabide teknikoak, <i>in situ</i> gertakarien euskarrirako erantzun-denborak	3 puntu
Biltegitratze eraginkorra handitzeko xehetasuna: kabina bakoitzean gehitu beharreko diskoen gutxieneko kopurua, igoera behar izanez gero. Positiboki baloratuko da eskatutako kopuru txikiena.	4 puntu

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

- Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiagoa izatea.
- Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarra izanik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Bi lizitatzaille izanik, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, alde batera utziko da batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena, batez bestekoa kontuan hartuta 10 ehuneko-puntu baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino txikiagoak direnak. Dena den, horien artean batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak aurkeztu dituztenean, txikiena hartuko da kontuan, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka aurkeztu duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Prozesutik kanporatuko dira eskaintzaren balorazio teknikoan gutxienez 15 puntu eskuratzen ez dituztenak.

ESKAINZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK

- Baldintza tekniko berezien pleguan eskatutako edozein ezaugarri tekniko ez betetzea. Horretarako, eskaintza teknikoan eskainitako *part number* guztien zerrenda sartu behar da, baita eskatutako eta sartutako ezaugarri bakoitzaren azalpen teknikoa ere.
- Eskaintzailearen teknikarientzat eskatutako ziurtagiriak ez betetzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Preskripzio tekniko partikularren agirian adierazitako kasuak eta ekintzak.

Adjudikaziodun bihurtzen den erakundeak ez badu betetzen lizitazio honetan ezarritako baldintzaren bat, BBUPk zigorak ezar diezazkioke erakunde horri, edo kontratua suntsiarazteko eska dezake, honako kasu hauetan:

Epeak ez betetzea:

- 1.- Baldintza teknikoen pleguaren mantentze-lanekin lotutako gorabeherak konpontzeko epea ez betetzea.



M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Zigorak: BBUPk jakinarazitako bost gorabeherengatik kontratua adjudikatzeko zenbatekoaren % 1, baldin eta fabrikatzailearekin izapidetzen emandako denborak plegu teknikoan ezarritakoa gainditu badu.

Kontratua suntsiaraztea: Aurreko zigorrak, denak batera hartuta, kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren % 10era iristen direnean, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du, eta jarritako bermea ez itzuli.

2.- Ekipoak hornitzeko eta zerbitzuan jartzeko denborak ez betetzea:

Kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren % 3ko zigorra, eskaintzan emandako kronogramarekin alderatuta soluzio osoa entregatzen eta zerbitzuan jartzen atzeratzen den hilabete bakoitzeko, zeinak zerbitzuan jartzeko denborak ezartzen baititu.

Kontratua suntsiaraztea: Zigorra kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren % 15era iristen denean, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du, eta jarritako bermea ez itzuli.

Kontratuaren xede den zerbitzua gaizki betetzea

1.- Informazioa edo datuak galtzea, eta kontratuak irauten duen bitartean landutako proiektuetan gordetako informazio sentikorrerako sarbidea urratzea.

Kontratua suntsiaraztea: Datuak babesteko araudia betetzea funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da, eta, beraz, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

2.- Kontratua indarrean dagoen bitartean eskuratzen den informazioari buruzko konfidentzialtasun-betebeharra ez betetzea.

Kontratua suntsiaraztea: Konfidentzialtasun-betebeharra betetzea funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da, eta, beraz, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

3.- Lantaldeko kideak aldatzea, BBUPk aldeztu aurretik jakin gabe. Zigorra: Kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 1, BBUPri aldeztu aurretik jakinarazi ez zaion lantaldearen aldaketa bakoitzeko.

Zigorrik izan bada, ateratzen den zenbatekoa emandako fakturaren zenbatekotik deskontatuko da.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lizitatzailerak laneko arriskuengatik erantzukizun-asegurua baduela ziurtatzen duen egiaztatzea.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

SPKLren 301.2. artikularen arabera, hornitu beharreko unitate-kopurua handitu ahal izango da, dagokion aldaketa-espedientea izapidetu beharrik gabe.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai.

P.- SUBROGAZIOA

Ez da aplikatu behar



Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Funtsezko kontratu-betebeharrak:

Funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da plegu teknikoaren 10. puntuan adierazitakoa, bereziki hauei buruzkoa:

- Konfidentzialtasun osoz gordeko dira zerbitzua emateko erabilitako datuak eta dokumentuak.
- Kontratu honen xede diren zerbitzuak ematearen ondorioz lortutako informazio konfidentzial oro hirugarrenei ez zabaltzea eta haien onurarako ez erabiltzea, arreta berezia jarrita indarrean dagoen Datuak Babesteko Lege Organikoan.